



Bizkaisare 2030 Estrategia

Bizkaiko gizarte elkartu
baterako estrategia
komunitarioa

Bizkaisare 2030 Estrategia

Aurkibidea

orrialdea

| | |
|---|-----------|
| 1. Sarrera | 4 |
| • Gaur egungo gizartearen ezaugarriak | 4 |
| 2. Zer behar dugu? | 8 |
| • Komunitate bateratu bat | 8 |
| • Bakardadeari aurre egitea..... | 9 |
| 3. Bizkaisare 2030 Estrategia | 16 |
| • Zer da?..... | 16 |
| • Elementuak..... | 17 |
| • Ikuspegiak | 18 |
| • Erronkak | 22 |
| 4. Bizkaisare 2030 Estrategiako ardatzak eta jarduerak | 24 |
| • Ezagutu | 24 |
| • Berba egin | 26 |
| • Saretu | 29 |
| • Egin | 32 |
| 5. Jarraipena eta ebaluazioa | 35 |

Gaur egungo gizartearen ezaugarriak

Bizkaiko gizartea aldatzen ari da, gainerako gizarteak bezala.

Aldaketa horiek batzuetan positiboak dira eta beste batzuetan negatiboak.

Baina beti pertsoneri eta komunitateari eragiten diete.

Gaur egungo gizartearen ezaugarri nagusietako batzuk hauek dira:

1. Osasuna

- Pertsonak orain lehen baino urte gehiago bizi gara. Adineko pertsona gehiago daudenez, mendetasun-egoeran dauden pertsona gehiago daude. Hau da, bizitza autonomoa eramateko eta gizartean harremanak izateko zailtasunak dituzten pertsona gehiago.
- Herritarrek gero eta beldur eta kezka gehiago sentitzen dituzte osasun mentalarekin eta, oro har, osasunarekin lotutako gaiekiko.

2. Bizikidetzak

- Gero eta gehiago dira bakarrik bizi diren pertsonak eta kide gutxiago dituzten familiak.
- Gero eta handiagoak dira belaunaldi desberdinetako pertsonen arteko aldeak. Adinekoak eta gazteak modu oso desberdinetan bizi dira. Gainera, balio eta jokatzeko modu desberdinak izaten dituzte.
- Leku berean elkarrekin bizi diren kultura eta erlijio gehiago daude herrialde desberdinetako herritarren etorrerari esker.
- Aukera gutxiago daude babes emateko eta jasotzeko eta pertsonen arteko elkarrekiko laguntzan oinarritutako harremanak bizitzeko.
- Euskal gizarteak aisialdiari garrantzi handiagoa ematen dio, lanari eta erlijioari baino.

3. Zerbitzuak

- Ez daude zaintzen eta arretaren zerbitzu publiko nahikoak behar dituzten pertsonentzako.
- Auzoetan gero eta denda gutxiago daude pertsonak Internet bidez eta merkataritza-gune handietan gehiago erosten dutelako.

- Espazio publikoak kentzen edo pribatizatzen dira eta zaila da gizarte-zerbitzu berriak sortzea edo daudenak mantentzea.
- Gero eta inklusio politika gehiago daude desgaitasuna duten pertsonentzat. Pertsona horiek aukera gehiago dituzte garrantzitsuak diren eremutan: hezkuntzan, enpleguan eta irisgarritasun neurrietan.

4. Teknologia eta ingurune digitala

- Kulturako, aisialdiko eta denbora libreko jarduerak gero eta gehiago egiten dira banaka eta teknologiarekin eta ingurune digitalarekin lotzen dira.
- Sare sozialek eta teknologiak gizartea aldarazten dute eta pertsonak bakartuago egonazten ditu.

5. Desberdintasuna

- Oraindik emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko **genero** desberdintasuna eta oztopoak daude.
- Oraindik kolektibo batzuei gehiago eragiten dieten era guztietako desberdintasun-egoerak daude. Adibidez, emakumeak, gazteak, etorkinak eta desgaitasuna duten pertsonak.

Genero.
Gizarteak gizonei edo emakumei ematen dizkien izaerari eta jarduteko moduei buruzko ideiak.

6. Segurtasuna eta konfiantza

- Pertsonengan nahikoa konfiantza izaten jarraitzen dugu.
- Erakundeekiko konfiantza gutxiago dago eta demokraziaren funtzionamenduarekiko atsekabea handiagoa da.
- Kezka handiagoa dago herritarren segurtasunik eza areagotzen ari delako. Hau da, pertsonak ez dira lehen bezain seguru sentitzen kalean.
- Beheko gizarte-mailetan konfiantza gutxi dago politikan eta interes gutxi hauteskundeetan parte hartzeko.



Komunitate bateratu bat

Komunitate bat osatzen du lurralde berean bizi den eta denbora, jarduerak eta balioak partekatzen dituzten pertsona talde batek.

Komunitate bakoitzak politika eta programa batzuen bidez funtzionatzen du.

Politika eta programa horiek herritarren eskubideak ezartzen dituzte honako alderdi garrantzitsu hauetan: hezkuntza, enplegua, etxebizitza, osasuna **hirigintza** eta kultura.

Baina zerbitzu eta eskubide horiek partekatzen dituzten pertsonen artean sortzen den harremanaren bidez ere osatzen da.

Harreman hori indartsua izan daiteke eta lagun dezake komunitatea bateratua egon dadin. Baina arazoak ere sor daitezke eta pertsonak banantzea eragin dezakete, baita komunitatean bakardade-egoerak eta gatazka-egoerak sortzea ere.

Komunitate bateko pertsonen arteko harremanak komunitate horrek lotura handiagoa edo txikiagoa izatea eragingo du.

Hirigintza.

Herri edo hiri baten eraikinak eta espazioak antolatzeko modua, arau batzuei jarraituz. Herritarren bizitza hobetzeko balio du.

Komunitate bateratu baten ezaugarriak

Gobernuek eta erakundeek politika publikoak sortu behar dituzte komunitatea bateratua egon dadin eta lurralde horretan bizi diren pertsona guztiak komunitatearen parte direla senti daitezen.

Komunitate bat bateratua eta lotuta egoteko ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Pertsona guztiek sentitu behar dute komunitatean barnean sartuta, ordezkaturata eta babestuta.
- Komunitatearen barruan bultzatu behar dira kultura, erlijio, sinesmen eta adin desberdineko pertsonen arteko kulturartekotasuna eta bizikidetza. Horretarako, pertsona guztiek esperientziak baldintza berdinekin partekatu ditzaketen tokiak sortu behar dira.
- Eskaintzen diren jarduerak askotarikoak izan behar dira komunitateko pertsonen arteko bizikidetza eta harreman ona sustatzeko.
- Sortzen diren programek pertsonen lagundu behar diete harreman indartsuak sortzen eta lagunduta sentitzen, bakardadea saihesteko.
- Administrazio publikoek komunitatearen ongizatea eta bertan bizi diren pertsonen lotura bilatu behar dute arlo guztietatik.

- Komunitateko pertsona guztiek behar adina baliabide ekonomiko eta material izan behar dituzte komunitateko bizitzan parte hartu ahal izateko eta gainerako herritarrekin harremanak izateko.
- Behar adina zerbitzu publiko eta sozial sortu behar dira komunitatean partekatzeke lotura eta toki gehiago egon daitezen.

Adibidez, parkeak, liburutegiak, gizarte eta kultura erakundeak, garraio publikoa eta kirol- eta aisialdi-guneak.

Komunitate bateratu baten onurak

Gaur egun agerikoa da gizarte bateratua eta lotua izateak komunitetari eta pertsona bakoitzari onura asko ematen dizkiola.

Hauek dira oinarritzko onura batzuk:

1. Komunitatean bizi diren pertsonentzako osasun baldintza hobek

Hori gertatzen da saihesten duelako banakako bakardade-egoera eta gizartetik isolatze-egoera gehiago gertatzea.

Egiaztatuta dago bakardadea eta isolamendua sufritzen dituzten pertsonen arrisku handiagoa dutela gaixotasunak izateko, baita lehenago hiltzeko ere.

2. Garapen ekonomiko handiagoa

Gizarte bateratu batean pertsonen gehiago ekiten dute, proiektu berritzaileak sortzen dituzte, emankorrak dira eta egoera zailak gaituzteko gaitasun handiagoa dute.

Horren ondorioz, komunitate horrek kanpotik datozen pertsona berriak erakartzen ditu, lurraldeari eta bertako biztanleei balio eta aberastasun handiagoa ematen dieten proiektu berriekin.

3. Bertako herritarren arteko batasuna

Gizarte bateratu batek laguntzen du lurralde horretan gatazka, indarkeria eta delinkuentzia gutxiago egon daitezen.

Baita onuragarria da ere pertsonen elkar errespetatzen eta borondatez elkarri gehiago lagundu diezaioten, komunitatearen parte gehiago senti daitezen eta bakardade arrisku gutxiago izan dezaten.

4. Ongizate pertsonala

Beren artean harremana duten pertsonen osatutako komunitateak zioritsuagoak dira, osasun handiagoa dute eta urte gehiago bizi dira. Komunitate horietan, herritarrek laguntza psikologikoa eta emozionala eskaintzen diete inguruan bizi diren pertsonen, krisi- eta behar-uneetan.

Arriskuak

Batzuetan, komunitatea ulertzeko modu batzuk eta kideen artean sortzen diren harremanak arriskutzat hartzen dira, arrazoi hauengatik:

1. Komunitate bateko kideen artean loturak pertsonen komunitateari lotuta sentiarazten die, ez elkarri batuta

Hori gertatzen da, batez ere, lurralde berean bizi diren baina elkarrekin harremanik ez duten eta talde bereko kide sentitzen ez diren pertsonekin, maila ekonomiko, gizarte-maila eta komunitatean bizitzeko modu desberdina dutenekin.

2. Komunitateak ez du dibertsitatea onartzen

Hori gerta daiteke komunitate bat etnia, kultura, erlijio eta sexu-orientazio desberdineko pertsonen osatzen dutenean eta harremanik ez dutenean ezta talde bakoitzak komunitateari ematen dion aberastasuna modu positibotzat hartzen edo baloratzen ez denean.

Dibertsitatea.
Ezaugarri fisiko, sozial eta pertsonal desberdinak dituzten pertsonak talde edo erakunde batean daudenean.

3. Pertsona batzuek sentitzen dute komunitateak isolatu eta menderatu egiten dituela

Komunitateak eskaintzen dituen loturek pertsonak babestuak eta aitortuak sentiarazi behar dituzte. Baina batzuetan ez da horrela gertatzen.

Adibidez, laguntza edo gizarte-zerbitzu batzuek pertsona bat babestuta sentiarazi dezakete, baina ez baloratuta edo aitortuta.

Lan batzuek berriz, pertsona bat gizartean aitortua sentiaraz dezake, baina, aldi berean, senti dezake ez dela gizabanako gisa duen gaitasuna errespetatzen.

4. Komunitateari eskatzen zaio bere gain har ditzala Administrazio Publikoaren ardurapekoak diren alderdiak

Komunitate batek ondo funtzionatzen duenean eta herritarrei zerbitzu asko eskaintzen dizkienean, Administrazio Publikoak bere gain hartu beharreko alderdiak komunitateari betetzeko eskatzeko arriskua dago.

Oinarrizko eremu batzuetan, hala nola osasunean, hezkuntzan eta gizarte-zerbitzuetan, Administrazio Publikoak eskaini behar ditu zerbitzuak.

Komunitateak ekintzak egin ditzake zerbitzu horiek lurraldeko errealitatera eta beharretara egokitzeko.

Bakardadeari aurre egitea

Pertsona batzuek bakarrik bizitzea edo ingurunearekin harreman gutxiago izatea aukeratzen dute denbora batez, horrela gusturago sentitzen direlako. Hala ere, komunitatean badira nahi gabeko bakardadea sufritzen duten pertsonak, aukeratu gabe bakarrik sentitzen direlako.

Pertsona batek nahi gabeko bakardadea sufritzen du behar duena baino gizarte-harreman eta -laguntza gutxiago dituenean edo gizarte-harreman horiek nahikoa kalitaterik ez dutela uste duenean.

Hauek dira nahi gabeko bakardadearen oinarritzko ezaugarri batzuk:

- Bakardade une gehiago bizi ohi dira pertsonaren bizitzan aldaketa garrantzitsuak gertatzen diren egoeretan.

Adibidez, beste hiri batera bizitzera joatea, alargun geratzea edo seme-alabak independizatzen eta bere kabuz bizitzera joaten direnean.

- Adin batzuetan aukera gehiago daude bakardadea sentitzeko. Adin horiek gaztarora eta zahartzarora iristea dira.
- Kolektibo batzuek aukera gehiago dituzte bakardadea sentitzeko. Adibidez, desgaitasuna duten pertsonak, indarkeriaren edo jazarpenaren biktimek edo **LGTBI+** kolektiboko pertsonak.

LGTBI+.
Egon daitezkeen sexu-orientazio, genero-adierazpen eta identitate guztien multzoa.

- Nahi gabeko bakardadea sufritzen duten pertsonak osasun txarra izateko, gaixotasunak izateko edo osasunerako txarrak diren ohituretan erortzeko arrisku handiagoa dute.

Bakardadea gizartean gero eta presentzia handiagoa duen arazoa da. Horregatik, hainbat herrialdetako administrazio publikoak egoera horiei aurre egiteko neurriak hartzen ari dira dagoeneko.

Bakardadearekin lotuta abian jarri diren programetatik ondorioak atera daitezke.

Arrakasta gehien izan duten programak ezaugarri hauek betetzen dituztenak dira:

- Komunitateko espazio publikoetan taldeko esku-hartzeak, bakardadea sufritzen duen pertsonaren etxean banakako esku-hartzeen orde.
- Esperientzia duten profesionalak egin dituzten terapia psikologikoen sozialen eta kognitiboen bidez esku hartzea.
- Belaunalditako desberdinetako pertsonen artean esperientziak trukatzea dauzkaten programak.
- Ondo zehaztutako programak, lurralde baten gizarte-errealitatean oinarritutakoak eta helburu argiak dituztenak.
- Pertsona ardatz duten esku-hartzeak. Parte hartzen duten pertsonak barnean sartuta sentitzen dira eta zeregin aktiboa dute bakarrik sentitzeari uzteko.

Zer da?

Bizkaiko Foru Aldundiko Plan bat da. Aldundiak Bizkaiko komunitatea garatzearen alde lan egiteko duen konpromisotik sortu da.

Bereziki, gazteen, adinekoen, migratzaileen eta desgaitasunen bat duten pertsonen garapenaren eta ongizatearen alde.

BizkaiSare 2030 strategiaren helburu nagusia da pertsonak eta komunitateak loturak sortzeko eta bakardadea saihesteko gaitasunak, strategiak eta baliabideak dituzten gizarte bat sortzen laguntzea.

Uste dugu komunitatea garatu dadin lurralde berean bizi diren pertsonen artean benetako elkarbizitza sustatu behar dela.

Horretarako, hasieratik ekintzak abiaraziko ditugu loturak eta gizarte-harremanak indartzeko eta bakardade egoerak saihesteko.

Arreta berezia jarriko dugu komunitatean loturak sortzeko zailtasun gehiago izan ditzaketen kolektiboek laguntzeko ekimenak sortzen. Adibidez, migratzaileei, gazteei, adinekoei eta desgaitasuna duten pertsoneri.

Baita sortuko ditugu ere komunitatea garatzea eta herritarren arteko batasuna sustatuko duten ekintzak oinarritzkoak diren esparru hauetan: enplegua, etxebizitza, hezkuntza eta hirigintza, besteak beste.

Elementuak

BizkaiSare 2030 strategiak funtsezko elementu batzuk ditu, planaren oinarritzko printzipioak direnak.

Printzipio horiek dira:

- Komunitatean loturak sortzea eta bakardadea saihestea helburu nagusi bezala.
- Elkarlana eta konplizitatea komunitatea osatzen duten sektore, erakunde, entitate eta pertsona guztiekin.
- Plangintzarako, kudeaketarako, komunikaziorako eta ebaluaziorako egitura eta dinamika berriak sortzearen garrantzia, bakardade egoera gutxiago eta komunitatean gatazka gutxiago egon daitezen lortzeko.
- Herritarrak sentsibilizatzea komunitatean loturak sortzearen garrantziari eta helburu hori lortzeko erakundeek betetzen duten zeregina aitortzeari buruz.

Ikuspegiak

BizkaiSare 2030 estrategiaren oinarrizko elementuak zehaztu ditugunean, definitu behar dugu elementu horiek gauzatzeko zer ikuspegi hartuko ditugun kontuan. Hau da, zer ikuspegitik egingo dugun lan.

BizkaiSare 2030 estrategia 3 ikuspegiren bidez gauzatuko da:

1. Ikuspegi duala

2 ekintza mota sortuko dira:

- Bakardadea saihesteko eta komunitatea osatzen duten pertsonen artean loturak sortzeko ekintzak eta neurriak.

Bakardade egoera larriak antzematen diren kasuei emango zaie arreta eta komunitateari eragiten dion arazo gisa tratatuko dira, ez bakarrik bakardadea sufritzen duen pertsonari eragiten dion arazo gisa.

- Ekintzak erakundeek eta administrazioek proiektuetan eta eguneroko lanean komunitatean loturak sortzea eta bakardadea prebenitzea barne har ditzaten.

Jardun horietan erakunde sozialak eta administrazio publikoak barne egon behar dira.

Duala.
2 ekintza edo fenomeno mota biltzen dituena.

2. Inklusioaren ikuspegia

Gizarte bateratua da bertan bizi diren pertsona guztiak barne eta diskriminatu gabe sentitzen diren gizartea. Pertsona guztiak berdinean hartzen eta aitortzen dituen gizartea.

Estrategia honetan aztertuko dugu zein pertsonak eta kolektibok duten zailtasun handiena bizi diren komunitatearen barne eta aitortuak sentitzeko.

Baita ekimen espezifikoak sortuko ditugu ere pertsona eta kolektibo horiei laguntza emateko eta gainerako komunitatearentzat ikaskuntza izan dadin.

Inklusioaren ikuspegi honen bidez, bereziki alderdi hauek izango dira kontuan:

- Generoa.
Neskek eta emakumeek sufritzen dituzten desberdintasunak ezabatzea, inguruko mutilek eta gizonek dituzten baldintza berdinetan parte har dezaten.
- Dibertsitate kulturala eta sexuala.
Beste herrialde batzuetatik datozen edo LGTBI+ kolektiboari dagozkion pertsonen sufritzen dituzten diskriminazioa eta desberdintasunak ezabatzea.
- Dibertsitate funtzionala.
Desgaitasunen bat duten pertsonen sufritzen dituzten desberdintasunak ezabatzea.

- Komunitarioa.
Komunitate berean bizi diren pertsonen arteko harremana sustatzea eta beren ingurunearekin eta komunitatearekin lotutako gaiei buruzko erabakiak hartzen parte hartzeko aukera emango dieten ekintzak sortzea.
- Ekosoziala.
Ingurumena zaintzearen eta babestearen garrantziaz eta ingurune naturalak duen balioaz kontzientziaz pertsona guztien artean harremanak izateko eta elkar zaintzeko lekurik onena izanik.

3. Hurbiltasun ikuspegia

BizkaiSare 2030 estrategia Bizkaiko lurralde guztietara iritsi behar da eta horretan Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztiek hartu behar dute parte.

Ez dira toki batean bakarrik esku-hartze isolatuak edo sail bat bakarrik arduratzen den ekintzak egin behar. Osasuna, hezkuntza, garraioa eta etxebizitza bezalako sailek elkarrekin lan egin behar dute komunitate bateko pertsoneri irtenbide osoak emateko.

Gainera, kontuan izan behar da eskualde bakoitzak ezaugarri desberdinak dituela eta, beraz, behar desberdinak dituela. Estrategia honek egoera horiez guztiez arduratuko diren ekintzak sortu behar ditu.

Helburu horiekin, hurbiltasun ikuspegia duten hainbat ekintza egingo dira. Horietako oinarritzko batzuk hauek dira:

- Gizarte Kohesioaren Zuzendaritzaren lankidetzaren dibertsitatea eta gazteria bezalako sailekin.
- Gizarte Ekintza Sailaren lankidetzaren adinekoekin lotutako arloekin eta Kultura Sailarekin.
- Lurralde bakoitzari loturak sortzeko eta bakardadea saihesteko behar dituen baliabideak eta zerbitzuak ematea, herri bakoitzaren tamaina eta ezaugarriak kontuan hartuta.
- Bakardadea sufritzeko arrisku handiagoa duten pertsonentzako jarduera espezifikoa abian jartzea.
- Tokiko elkarteei eta erakundeei laguntzea, komunitateko kideen arteko elkartasuna sustatu dezaten eta bakardadea prebenitzeko ekintzak egin ditzaten.

Bereziki, gazteekin, adinekoekin, migratzaileekin eta desgaitasuna duten pertsonekin lan egiten duten gizarte-erakundeei.

Erronkak

Estrategia hau gauzatzeko zailtasun batzuei aurre egin behar diegu. Baina zailtasun horiek erantzun diezaiekegun erronka bezala ikusi behar ditugu.

Hauek dira erronkak:

1. Bakardadearen egoerei buruzko ezagutzarik eza

Sakonago aztertu behar dira kolektibo desberdinetan zer faktorek eragiten duten bakardadea, lurralde bakoitzean bakardadea nola prebenitu eta komunitatean lotura gehiago nola sortu.

2. Bizkaian bakardade egoerak eta komunitatearekiko lotura falta prebenitzeko estrategia gehiagoren beharra

Herritar guztientzako, kolektibo espezifikoentzako eta bakardadea sufritzeko arrisku handiagoa duten pertsonentzako bakardadea prebenitzeko estrategiak sortu behar dira.

3. Komunitateko esparru ezberdinetan bakardadeari aurre egiteko ekimenak, loturak eta laguntza-sareak falta dira

Auzokideen arteko bizikidetzarekin, boluntariotzarekin eta komunitatea garatzearekin lotutako ekimen gehiago sortu behar dira.

Baina ekimen horiek ez dute isolatuta egon behar, baizik eta gai hauekin lotutako programen barruan: osasuna, bizikidetzeta, segurtasuna edo garapen ekonomikoa, besteak beste.

4. Kezka politiko eta sozial gutxi dago bakardadearen eta komunitatean loturarik ez izatearen inguruan

Gai hau **agenda publikoan** eta programa politikoetan egon behar da.

Horregatik, erakunde eta kargu politikoekin elkarrizketak izan, egoera zein den azaldu eta ekintza zehatzen bidez konpromisoa hartzeko eskatu behar da.

Agenda publikoa. Gizartea kezkatzen duten eta agintariak landu eta eztabaidatu behar dituzten gaien multzoa.

Bizkaisare 2030 Estrategiako ardatz eta jarduerak



Ezagutu

Zertan datza?

Komunitate bat ezagutzeko, gehiago jakin behar da komunitatea dagoen lurraldearen errealitateaz, dituen baliabideez eta bertan bizi diren pertsonez.

Adibidez, komunitateak dituen baliabide ekonomikoak eta sozialak eta herritarren ezaugarriak.

Toki desberdinetako eta pertsona desberdinen esperientziak ezagutzeak gizarte bateratu bat eraikitzeke aukera ematen diguten ekimenak aitortzen eta, batzuetan, saritzen laguntzen digu.

Zer egingo dugu?

- 3 txosten sortzea Bizkaiko **gizarte kohesioaren** egoerari buruz eta herritarrek duten bakardade-sentimenduari buruz.
- Herritarrei eragiten dieten gai zehatzei buruzko txostenak sortzea. Adibidez, bakardadera daramaten faktoreak edo zehazki kolektibo baten egoera.

Gizarte

kohesioa.

Komunitatearen parte sentitzea, taldearekin harremanak izatea eta taldean lan egitea komunitateko guztien ongia lortzeko.

- Unibertsitateekin harremanetan jartzea, ikasleek Bizkaiko komunitatearen egoerari eta herritarren bakardade-sentimenduari buruzko ikerlanak egin ditzaten proposatzeko.
- Herritarrentzako zerbitzuak eta baliabideak sortzea, komunitatea eraikitzen eta loturak sortzen laguntzeko.
- 2026tik aurrera, gai espezifikoari buruzko sari- eta aintzatespen-deialdiak abian jartzea.

Adibidez, nahi gabeko bakardadeari edo komunitateko kideen arteko harremanei buruz berba egiten duten ipuin laburren, argazkien edo podcasten sorkuntzaren lehiaketak.

Zer lortuko dugu?

- Gizarte kohesioari eta bakardadeari buruzko 3 txosten.
- Kolektiboari eta herritarrei modu berezian eragiten dieten gai zehatzei buruzko 3 txosten.
- Txostenen emaitzen bidez, komunitatean loturak sortzeko eta bakardadea prebenitzeko informazioa emango duten tresna erabilgarriak sortzea.
- 2 sari- eta aintzatespen-deialdi, loturak eraikitzen, komunitatea garatzen eta bakardadea prebenitzen laguntzen duten pertsonentzat eta erakundeentzat.

Berba egin

Zertan datza?

Komunitate bat ezagutzeak eta komunitatearen beharrak zein diren ezagutzeak egoerak hobetzeko zer egingo dugun berba egiteko aukera ematen digu.

Elkarrizketa horietan, hezkuntza, osasuna, etxebizitza, garraioa eta gizarte-zerbitzuak bezalako eremuetako hainbat erakundek, entitatek eta kolektibok parte hartu behar dute.

Bakoitzak bere iritzia eman behar du eta adierazi zer ekarpen egin dezakeen eta zer konpromiso hartzen dituen kasu bakoitzean.

Erakundeek elkarrizketa horiek eguneroko lanean sartu eta agendetan kontuan hartu behar dituzte. Ezin da noizean behin bakarrik egiten den zerbait izan.

Elkarrizketa horietan tokia egon behar da ere bakardadea sufritzeko arrisku handiagoa duten pertsonen parte har dezaten.

Aurrera egiteko talde-lanaren garrantzia argi uzten duten errespetuzko elkarrizketa interesgarriak sortzeko proposamen guztiak partekatu behar dira.

Elkarrizketen helburua da kolektiboak sentsibilizatzea eta ekintza bateratuak sortzea dagoeneko egiten ari dena hobetzeko, komunitatean lotura gehiago sortzeko eta bakardadea prebenitzeko.

Zer egingo dugu?

- Komunitatea garatzeari eta bakardadearen prebentzioari buruzko kongresuak antolatzea.
- Herritar guztientzako jardunaldi irekiak eta erakunde publikoekin jardunaldi bereziak antolatzea. Gai honetan lanean ari diren erakundeek antolatzen dituzten jardunaldiak sustatuko dira.

- Erakundeekin eta entitateekin berba egitea.

Gizarte Kohesiorako Zuzendaritzak lehenetsiko du berba egitea gazteriarekin eta kultura- eta sexu-dibertsitatearekin zerikusia duten arlo eta erakundeekin.

Gizarte Ekintza Sailarekin ere berba egingo du eta bereziki mendekotasunarekin, desgaitasunarekin eta adinekoekin zerikusia duten erakundeekin eta lan-mahaiekin.

Gainera, kultura, garraio, ingurumen eta boluntariora arloekin berba egingo du.

- Komunitatea garatzeari eta bakardadearen prebentzioari buruzko ekintzak egin dituzten beste foru aldundi batzuekin berba egitea.
- Eusko Jaurlaritzarekin berba egitea hauekin lotutako gaiei buruz: gizarte zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, gazteria eta gai horien inguruan sortzen diren lan-mahaiak.
- Komunitatea garatzeari eta bakardadeari buruz berba egitea lehendik dauden tokietan eta erakundeetan. Adibidez, bakardade eskola, “death café”, zaintzaileen foroak eta ahalduntzeko eskolak.

- Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko ikastetxeekin berba egitea, zer ekimen egiten ari diren jakiteko eta lankidetzak posibleak sortzeko.
- Jarduera kulturalak sortzea, hala nola, komunitatea garatzeari eta bakardadeari buruzko gaiak lantzen dituzten liburuen aurkezpenak, erakusketak, antzezlanak, abestiak edo museoetara bisitak.

Zer lortuko dugu?

- Komunitatea garatzeari eta bakardadeari buruzko 2 biltzar, 2024. eta 2026. urteetan.
- Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako 4 jardunaldi jarraitu beharreko estrategiei buruz.
- Gizarte kohesioari eta bakardadeari buruzko hainbat elkarrizketa-foro abian jartzea, toki-, foru- eta nazioarte-mailan.
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin zerikusia duten adinekoen, gazteen, migratzaileen eta desgaitasuna duten pertsonen kolektiboak ordezkatzeko dituzten mota guztietako erakunde eta organismoekin harremana.
- Aldundiak sentsibilizazio-kanpaina bat egitea komunitatea garatzeari eta bakardadeari buruz.
- Komunitatea garatzearen eta bakardadea prebenitzeko loturak sortzearen gaia jorratzea ahalbidetzen duten 2 kultura-jarduerari laguntzea, gutxienez.

Saretu

Zertan datza?

Testuinguru honetan, sareak sareak sortzea esan nahi du, elkarrekin lan egiteko eta guztientzako helburuak lortzeko.

Pertsonen, erakundeen eta entitateen arteko elkarrizketen helburua da sareak sortzea komunitatean loturak sortzen dituzten eta bakardadea prebenitzen laguntzen duten gai eta egoera zehatzak lantzeko. Sare horietako batzuk erakundeen barruan sortuko dira eta ekintza berriak abian jartzeko aukera emango dute.

Beste sare batzuk sortuko dira elkarrekin lan egiten ez duten baina helburu komunak dituzten organismoen eta erakundeen artean.

BizkaiaSare 2030 estrategiak helburua du elkar aitortzen duten eta komunitate elkartuagoak sortzeko lotzen diren pertsonak eta erakundeak edukitzea.

Sareak komunitatea osatzen duten banakakoek eta kolektiboek osatu ditzakete, hala nola, tokiko saltokiek, kultura-, kirol-, osasun- edo bestelako erakundeek.

Zer egingo dugu?

- Administrazio publikoaren barruan sareak eta baterako jarduerak sortzea.
- Komunitatearen garapena sustatzeko eta bakardadea prebenitzeko jarduera-plan bat izan nahi duten Bizkaiko udalerrri eta eskualde desberdinen arteko sareak sortzea.
- Saregileak sarean sartuko diren pertsonen eta kolektiboen beste sare batzuk gauzatzeko aukerak baloratzea eta definitzea.
- Lehentasunezko kolektiboak ordezkatzeko dituzten erakundeekin sareak eta aliantzak sortzea: adinekoak, gazteak, desgaitasuna duten pertsonak, kultura eta orientazio sexual desberdinetako pertsonak.
- Lehendik dauden espazioak eta ekimenak aprobetxatzea sareak sortzeko. Adibidez, Bizkaiko Adinekoen Kontseilua, Gizarte Elkarrizketarako Mahaia eta Bizkaia Gara.
- Eusko Jaurlaritzako sailekin sarean lan egiten jarraitzea. Adibidez, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua eta Zainketen Aldeko Herri-Ituna.
- Erakunde artistikoekin aliantzak eta jarduerak sortzea. Adibidez, museoekin eta liburutegiekin. Toki horietan antola daitezkeen jardueretako batzuk dira: bakardade egoeran dauden pertsonen bisitak eta komunitatearekin eta bakardadearekin lotura duten idazketa- eta irakurketa-taldeak.

- Unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin aliantzak eta ikerketa-proiektuak sortzea.
- Bakardadearen gaia lantzen esperientzia duten ekimenekin harremanetan jartzea. Adibidez, Global Initiative on Loneliness and Connections edo Nazio Batuak.

Zer lortuko dugu?

- Koordinazio lerro berriak eta elkarlana Gizarte Kohesiorako Zuzendaritzaren dibertsitatea eta gazteria sailekin.
- Ikerketarekin zerikusia duten 2 erakunderekin aliantzak egitea gutxienez.
- Kulturarekin zerikusia duten 2 erakunderekin aliantzak egitea gutxienez.
- BizkaiaSare 2030 sarea sustatzea, BizkaiaSare 2030 estrategiaren jarraipena egiteko eta parte hartzeko gune gisa.
- Saregileak sarean parte har dezaketen pertsonen, kolektiboen eta erakunde publikoen sareak martxan jartzea.

Egin

Zertan datza?

Sareak sortzean eta elkarrekin jardutean aldaketak gertatzen dira pertsonengan eta gauzak egiteko moduan.

Horregatik, BizkaiSare 2030 estrategiaren helburua da sareak eraikitzea gizartean lotura berriak sortzeko eta bakardadea prebenitzeko aldaketak egiten laguntzeko.

Erakundeen, kolektiboen eta pertsonen arteko sare-lanak koordinatuta egon behar du eta helburuak eta lan egiteko moduak partekatzen dituen metodologia komuna izan behar du.

Gida honek ekintza zehatzak proposatzen ditu, pertsonak eta erakundeek sarean lan egin ahal izan dezaten, denentzako jarraibide batzuei jarraituz eta BizkaiSare 2030 strategiaren helburua ahaztu gabe.

Baita laguntza eskainiko da ere udalerrri bakoitzean, komunitatean eta erakundeen barruan ekintza-planak gauzatzeko. Plan horiek aukera emango dute jarduera berriak sortzeko eta bakardadea prebenitzeko.

Zer egingo dugu?

- Erakundeei eta entitateei laguntzea bakardadea prebenitzearekin eta komunitatea garatzearekin zerikusia duten ekintza zehatz, espezifikoak eta berriak gauzatzeko.
- Tresnak dituen metodologia bat sortzea tokiko eta udalerriko ekintza-planak gauzatzeko.
- Metodologia zehatz bat sortzea erakundeek bakardadea prebenitzeko eta komunitatea garatzeko gauzatzen dituzten proiektu guztietan erantsi dezaten.
- Laguntza deialdiak eskaintzea bakardadea prebenitzeko eta komunitatea garatzeko ekintza-planak dituzten herrietan eta udalerrietan ekintzak sustatzeko.

Baita laguntza deialdiak eskaintzea ere bakardadea prebenitzeko eta komunitatea garatzeko ekintza-planik ez duten herrietan ekintzak sustatzeko.
- Kolektibo espezifikoekin edo bakardadearekin lotutako gairen batekin lan egingo duten ekimenak sustatzea.

Zer lortuko dugu?

- Metodologia berri bat eskualdeetan eta udalerrietan komunitatea garatzeko eta indarkeria prebenitzeko planak sortzeko.
- Gutxienez 3 udalerritan edo herritan komunitatea garatzeko ekintza-planak abian jartzea.
- Bakardadea prebenitzearekin eta komunitatea garatzearekin lotutako ekimenak abian jartzea oraindik ekintza-plan bat sortzeko prest ez dauden 3 udalerritan edo herritan.
- Gizarte arloko toki erakundeei laguntzeko ekintza zehatzak, proiektuetan bakardadea prebenitzea eta komunitatea garatzea sar dezaten.
- 2 deialdi komunitatea garatzearekin eta bakardadearekin lotutako proiektu espezifikoak eta berritzaileei laguntzeko.

5

Jarraipena eta ebaluazioa



Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Kohesioaren Zuzendaritza arduratzen da BizkaiSare 2030 estrategiaren jarraipenaz.

Gainera, BizkaiSare sarea sortu da eta planak sortzean eta jardueren jarraipenean parte hartzen du.

Estrategiaren jarraipena egiteko, urteko txostenak egingo dira. Txostenek azalduko dute Bizkaian urtero zein den komunitatearen garapenaren egoera eta bakardadearen egoera.

Txosten horiek informazio zehatza emango du eta xehetasunak emango ditu hauei buruz: herriak eta udalerrak, kolektibo espezifikoak, egoera sozial eta ekonomikoa eta beste egoera batzuk.

Gainera, hirugarren urtetik aurrera ordura arte egindako ekintzen emaitzak emango dituzte.

Ardatz bakoitzean alderdi zehatz batzuen urteko jarraipena egingo da.

Hauek dira alderdiak:

Ezagutu

- Komunitatearen garapenaren eta bakardadearen egoera Bizkaian, kolektiboen eta lurraldeen arabera.
- Bizkaian bakardadeari buruz dagoen pertzepzioa.
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera sustatutako jarduketaren ezagutza, balorazioa eta eragina.

Berba egin

- Bakardadeari aurre egiteko estrategien eta baliabideen berri edukitzea.
- Elkarrizketak hasi ondoren, komunitatearen garapenari eta bakardade egoerari buruzko jarrerak aldatzea.
- Elkarrizketen ondoren entitateetan, udaletan eta Bizkaiko Foru Aldundian egiten diren aldaketak.

Saretu

- Kolektibo espezifikoekin, komunitateekin eta erakundeekin lortu diren lotura berrien balorazioa.
- Sareen bitartez egin diren aldaketak eta horien balorazioa.
- Bakardadea prebenitzeko sortu diren sareen eta estrategien balorazioa. Barne dauden pertsonak eta gaiak.

Egin

- Sortu diren lotura komunitarioen eta horri buruz egin diren jarduketaren balorazioa.
- Bakardadea prebenitzeko egin diren jarduketaren balorazioa.
- Egin diren berrikuntza-proiektuen balorazioa, zein eremutan eta zein kolektiborekin egin diren.



*enplegua, gizarte kohesioa eta
berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo,
cohesión social e igualdad*



Bizkai Sare

Gizartea ehuntzen / Tejiendo la sociedad